

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

B-6042

LAN HARREMANETAKO E.T.

1. ariketa. 2. proba

GALDERAK

Denbora, gehienez: 120 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Kontuan izan galdera bakoitzaren balioa, eman bazaio.
- Adi egon, identifikazio pertsonalerako txartela jaso diezazuten.
- Ez ahaztu ordezkagiria hartzea (irakurketa optikorako inprimakiaren beheko ezkerreko zatia).
- Adi egon, batera grapa ditzaten irakurketa optikorako orria, azaleko inprimakia eta zure erantzun-orriak.

Eskerrik asko zure laguntzagaritik.

Galdera	Balioa	Galderaren idazkuntza
1	1,00	Prestazioaren definizioa eta zenbatekoa, ezintasun iraunkor partzialen kasuan.
2	1,00	Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeetako bazkide motak eta horien betebeharrak, Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeei buruzko 25/1983 Legearen arabera.
3	1,00	Gertakizun arruntengatiko eta gertakizun profesionalengatiko kotizazioa, gaixotasun profesionalaren ondoriozko aldi baterako ezintasunen kasuan.
4	1,00	Zuzendaritza-langile profesionalen berariazko erregimen juridikoaren definizioa eta printzipio gidariak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.
5	1,00	Enplegu publikora sartzearen inguruko printzipio konstituzionalak eta gainerako printzipio gidariak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen 55. artikulua arabera.
6	1,00	Merkataritza-sozietate kapitalistetako bazkide eta administratzaileak Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian sartzea. Sozietatearen benetako kontrolari buruzko presuntzioak.
7	1,00	'Erabateko prestutasuna' ordainsari-kontzeptuaren definizioa eta erregulazioa, Gasteizko Udaleko Funtzionarioen Lan Baldintzak arautzen dituen Hitzarmenaren 68. artikulua arabera.
8	1,00	Enpresan antolakuntza prebentiboa zertzeko aukera legalak –Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legean jasoak–. Zerrendatu dauden motak eta definitu horiek laburzki.
9	1,00	Karrerako funtzionarioen ordainsarien sailkapena, eta horietako bakoitzean sartzen diren ordainsari-kontzeptuak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen 22. artikulua arabera.
10	1,00	Zerrendatu, eta azaldu laburzki, gatazka kolektiboak konpontzeko prozedurak. Prozedura bakoitzaren bitartez konpon litezkeen gatazka kolektibo motak.
11	1,00	Aurrekontu plantillen definizioa eta osaera, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 22. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.
12	1,00	Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio eremua, kotizaziopeko modalitatean (Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren 7. art.).
13	1,00	Administrazio publikoen diziplina-ahalmenaren definizioa eta printzipio gidariak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen 94. artikulua arabera.
14	1,00	Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea eta aldizkako kontratu finkoa bereizten dituzten irizpideak, halakoak egiteko legezko baldintzei gagozkielarik. Lege-arauak.
15	1,00	Besteren kontura diharduten langileen ordainsari-kreditua babestea. Ordainsariak kobratzeko lehentasun motak, eta erreklamatzeko epeak.
16	1,00	Gastuen aurrekontu publikoa gauzatzeko faseak: bakoitzaren definizioa.
17	1,00	Erretiro partzialaren eta erretiro malguaren arteko ezberdintasunak.
18	1,00	Estatutuez kanpoko hitzarmen kolektiboa. Definizioa, nola egiten den eta baliotasuna. Ez betetzearen ondorioak.
19	1,00	Karrerako funtzionario izaera galtzeko arrazoiak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen 63. artikulua arabera.
20	1,00	Ordainketa-kredituen egoerak: zerrendatu eta eman bakoitzaren definizioa.